

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

#### INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

## 2072

*IRAGARKIA, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez Nekine, SLU enpresak Zaldibian zurezko palak eta plastikozko ontziak konpondu eta saltzeko jarduerarako aurkeztutako proiektu teknikoa jendaurrean jartzen dena, Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen-baimen bakarra lortzeko.*

Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legeak ingurumen-baimen bakarraren araubidearen mende jartzen du titulartasun publiko edo pribatuko jarduerak eta instalazioak ustiatzea, baldin eta I.B. eranskinean jasotako jardueraren bat garatzen bada.

Ingurumen-baimen bakarraren bidez, egintza bakar batean eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak aldeztu aurretik emandako administrazio-prozedura bakar batean integratuko dira hondakinak sortzeko eta kudeatzeko baimenak, kolektorera, jabari publiko hidraulikora eta itsas-lehorreko jabari publikora isurketak egiteko baimenak eta atmosferara egindako emisioak, eta kasuan kasuko isurtzeko muga-balioak finkatuko dira, aplikatzekoa den araudi sektorialean xedatutakoaren arabera.

Aipatutako arauak 36. artikuluan ezartzen duenez, behin eskabidea aurkeztuta eta aurkeztutako dokumentazioa osatuta dagoela egiaztatuta, instalazio- edo jarduera-proiektua jendaurrean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epean, alegazioak aurkeztu ahal izateko. Horretarako, aldeztu aurretik iragarkia jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa.

Zabalkunde handiagoa izan dezan, iragarki hori jarduera edo instalazioa kokatuta dagoen lurraldeko udalari jakinaraziko zaio, toki-erakundeak bere ediktu-oholean jar dezan.

Hori dela eta, AAU01208\_SOL\_2024\_001 espedientea jendaurrean jarri behar da hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita, egoki irizitako alegazioak edo oharrak aurkez daitezten.

Jendaurrean jartzeko izapidea bete behar duen instalazioaren dokumentazioa jendearen eskura egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>).

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 6a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,  
NICOLAS GARCIA-BORREGUERO URIBE.